



Miarritze, 2026ko urtarilaren 10a, Larunbatean

PRENTSA OHARRA

Miarritzen, Mainer Arosteguyk elkarretaratzearen zeinupean bere kanpaina abiarazten du bere kanpaina

Larunbat honetan, Mainer Arosteguyk, Miarritzeko auzapez eta 2026ko herri hauteskundeetarako hautagaiak, bere kanpaina abiatu du Miarritzarrei idekitako topaketa denboran, eta Miarritzerako bere hautagaitzaren inguruan eskuina eta zentroaren biltzeko dinamika batean.

Mainer Arosteguy-rekin batera, hainbat alderdi politikoek hartu dute hitza 2020tik engaiatua izan den ibilbideari babesa eta atxikimendua emateko: Horizons, Euzko Alderdi Jeltzalea, les Centristes eta Nouvelle Energie. Engaiamendu ezberdinak, sinesmen partekatu bat adierazten duena: Miarritzerentzat engaiatua den lanari segida baten beharra, metodo batekin, argitasunean eta erantzukizunarekin

"2020tik iparrorratz bat badu Miarritzek. Mainer Arosteguy du izena. Proiektu baten obratzeak iraupena eskatzen du, testuinguru orokorrak egonkortasuna eskatzen du. Mainer, norabide argia da, fidagarria eta asumitua da hirirako ", erran du Jacques-Emmanuel Saulnier Miarritzeko Horizons herriko ordezkariak.

Pantxoa Bimboire Haritschelhar, Iparraldeko Euskal Alderdi Jeltzalearen presidenteak azaldu duenez, "gaur Mainer Arosteguyk engaiatu elkarretaratzearekin bat egitea deliberatzen dugu, egindako lana, Miarritzeren alde duen engaiamendua eta azken sei urteetako emaitzak ikusirik. Hiriarentzat hasitako ekintzarekin jarraitzeko borondatearekin bat gatoz. Gu, Mainerrekin! "

François Hauretek, Les Centristes alderdiko 64 departamenduko ordezkariak, 2020az geroztik eraman lanaren jarraipena orroitu du: "Duela sei urtetik, Mainer Arosteguy-rekin batera aritu gara lanean, konfiantsan eta ekintzetan. Bilana sendoa da, metodoa frogatua da, eta gaur egun, naturaltasunez, hurrengo agintaldirako baimena berritzen diogu ".

Marie Bouyrelou, Energia Berriko departamenduko ordezkariak dinamika kolektiboa azpimarratu nahi izan du: "Hemen biltzen gaituena eskakizun bera da Miarritzerentzat eta uste osoa dugu Mainer Arosteguy dela egokiena hiri seriotasunez, engaiamenduz eta idekitasunez aitzina eramaten segitzeko".

Max Brisson, Pirinio Atlantikoetako senatari eta Errepublikanoen federazioko presidenteak, herriko auzapezaren tokiko errotzea eta duen ikuspegia azpimarratu ditu: "aspaldiko Miarritzarra, hiri honi atxikia, badakit Miarritzek behar duen jarraipena eta anbizioa. Mainer Arosteguy da, gaur egun, Miarritzeko distira jarrarazteko aterabiderik hoberena ".

Bilana eta elkarriketa denbora baten idekitzea Miarriztarrekin

Kanpaina abiatze honek, halaber, sei urteko agintaldiaren balantzeari buruzko sekuentzia baten idekitzea adierazten du. Ondoko asteetan, zenbait bilkura publiko antolatuak izanen dira, egindako lanaren partekatzeko, eztabaidatzeko eta etorkizunari begira kolektiboki proiektatzeko:

- **Urtarrilaren 17an, larunbatez, 11:00etan** – Koliseoa
- **Urtarrilaren 24an, larunbatez, 11:00etan** – Biarritz Atlantique Hotel lizeoa
- **Urtarrilak 31, larunbata, 17:30tan** – Elkarteen etxea

"Kanpaina hau azken sei urteetan egindako lanaren jarraipenaren baitan kokatzen da. Gaur idekitzen da ardura, harremana eta elkarretaratze izpirituarekin, Miarritzen etorkizuna eraikitzen segitzeko, Miarriztarrekin ", adierazi du Maider Arosteguyk ekitaldiaren ondotik.

Prentsa harremana

Nicolas Trinquier, Kanpaina zuzendaria – nicolas@maider2026.fr /06 75 61 78 83